

harkua bete berpa



>> LITERATURA

ITSASOAN GALDUTAKO INGELES BATEN OROITZAPENAK

Zorrotzaurreko penintsula irla bihurtzeko Deustuko kanalaren irekiera prozesuan bete-betean sartuta gauden honetan, online irakurgai jarri du Robert Alcockek 2015eko abenduan ZAWP eta La Haceriaren babesarekin paper formatuan argitaratu zuen 'La isla que nunca fue: Memorias de un naufragio inglés en Zorrozaurre' liburua.

Testua: PREST! - Irudiak: ZAWP

Egilearen esanetan *La isla que nunca fue* "memoria personal bat" da "ia irla den honetan, ia ezezaguna bilbotar askorentzat, 15 urtez amesturiko bizitza bati buruzko esperientzia kontatzen duena".

Obrak pertsonaia desberdinak ditu, Berthold Brecht eta Zaha Hadid esaterako, sugandila eta martin arrantzaleak, Gargantua eta mila begiko

piztia, okupak eta grafiteroak, espekulatuzaileak eta artistak ageri dira bertan. "Auzo beretik amestu diren etorkizun alternatibo, adostu, bizigai, berde, iraunkorren istorioa ere bada, kanpotik jaurti den etorkizun ofizialetik oso hurrin".

Liburu hau "memoria-ekintza bat da hondeatzaileen iritsieraren aurrean". Bere helburua "iruzur hadiaren sasoi

egia txikiak kontatzea da". Federico Garcia Lorca esan zuen, "hay que recordar hacia mañana". Obra honek "beste etorkizun, beste hiri, beste inoiz izan ez diren, baina oraindik izan ahal diren irlaren bidean bere harri-koskorra ekartzea" espero du Robert Alcock egileak.

Egilea

Robert Alcock (Exeter, Erresuma Batua, 1970) Biologian doktorea da, idazlea eta diseinatzaile ekologikoa. Bilbora 1999an iritsi zen itsas-ekologiari buruzko ikerketa-lan bat gauzatzera. Bera eta bere neska-laguna Zorrotzaurren bizi izan ziren hainbat urtez, Zorrotzaurre Iraunkor Baterako Foroaren fundatzaile eta kide aktiboak izan ziren, eta ora-

indik lotura indartsuak mantentzen dituzte auzoarekin.

Erreferentziak

"Liluragarria... berriro gogorarazten digu leku guztiek -barruti bakoitzak, auzo bakoitzak, herri bakoitzak, hiri bakoitzak- bere istorioa dutela... eta komunitate batek egiten duena defendatzea merezi duela". Paul Scraton, *Elsewhere: a Journal of Place*.

Liburu online: issuu.com/zawpbilbao/docs/la_isla_que_nunca_fue

Liburuaren aurkezpen bideoa youtuben dago.

Izenburua: *La isla que nunca fue: Memorias de un naufragio inglés en Zorrozaurre*

http:// **sarekada**

www.bilbao.eus/aurrerago

Hiri Antolaketarako Plan Orokorraz eztabaidatzeko aukera

Udalak 'Bilbao Aurrerago!' izeneko herritarren parte hartzeko prozesua aurkeztu du. Prozesuak, irailtik aurrera, datozen hamarkadetako hiri-ereduaren eztabaida ahalbidetzea du xede. Besteak beste, ekipamendu, azpiegitura (bideak, trenbideak eta zerbitzuak) eta berdeguneetako sistemetako funtsezko elementuak zehazteko.

zinebi.eus

'Nosotras, mujeres de Euskalduna'



Larraitz Zuazok *Nosotras, mujeres de Euskalduna* lana ZINEBI jaialdian estreinatuko du. Dokumentalak, Euskalduna Ontzioletako Emakumeek (AME), ontziolen bizi-raupenaren alde, 1983 eta 1988 artean izandako borrokaren gomuta berreraikiko du. Langileen borrokan parte-hartze zuzena izatek sortu ziren kontzientzia hartzea eta ahalduntzea, eta ia erabat gizonezkoek osatutako ingurune hartan, emakume izatearen eta norberaren burua emakume lez aldarrikatzearen zailtasuna erakusten du filmak.

NEUMÁTICOS MITXEL

JADA MARTXAN!!!

Blas de Otero 59, Deustu [Ikastetxearen aurrean]

Kontaktua:
94 407 26 69
neumaticosmitxel@gmail.com

